

GUNEEN ALOKAIRUA ESKATZEKO PROZEDURA

Instalazioen alokairua kudeatu egingo da Bizkaiko Campuseko barneko eta kanpoko espazioak erabiltzeko arautegiari jarraituta, eta "Espazioen Erreserba" izeneko aplikazioaren bidez egingo da.

Dena dela, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko edozein espazio, zerbitzu, ekipamendu edota instalazio alokatu nahi duenak, lehenengo eta behin, alokairua koordinatzen duten pertsonekin jarri beharko du harremanetan:

Loli Alonso | 94 601 8033 | lola.alonso@ehu.eus | Dekanotzako 2. solairua, bulegoa: 2.04
 Izaskun Vergara | 94 601 5165 | izaskun.vergara@ehu.eus | Dekanotzako 2. solairua, bulegoa: 2.04

Bi tarifa mota daude alokatzeko espazio eta instalazioen ezaugarrien arabera:

1. LOKALAK ERABILTZEKO PREZIOAK

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko gradu aretoa, eraikineko sarrera, informatika edo multimedia gelak eta aretoak alokatzeko tarifak UPV/EHUk urteko tarifetan ezarritakoak izango dira, eta oro har horietan erabili behar dira. Ondorengo taulan jasotzen dira tarifak:

Lokal mota	1. TARIFA Ordu solteak Orduko prezioa	2. TARIFA Egun bat 8:00-20:00	3. TARIFA Egun erdia 08:00-14:00 edo 14:00-20:00
Gradu Aretoa (GKZ Auditorioa)	189 €	1.411 €	706 €
Eraikinen sarrera	284 €	1.690 €	849 €
A motako gelak (101 plazatakoa edo handiagoa)	113 €	1.013 €	509 €
B motako gelak (51-100 plaza)	75 €	676 €	339 €
C motako gelak (50 plazatatik beherakoak)	37 €	375 €	189 €
Informatika gelak:			
25 ordenagailu gehienez	245 €	2.162 €	1.082 €
25 ordenagailu baino gehiago	284 €	2.574 €	1.289 €
Multimedia gela/aretoa	75 €	2.369 €	1.185 €

2. IKUS-ENTZUNEZKOETARAKO INSTALAZIOAK ERABILTZeko TARIFAK

Instalazio mota	1. TARIFA Ordu solteak Orduko prezinoa	2. TARIFA Egun bat 8:00-20:00	3. TARIFA Egun erdia 8:00-14:00 edo 14:00-20:00
Audiolab lokutorioak, 2., 3. edo 4.a Postprodukzioko audiolab (1. lok.)	107 € 178 €	957 € 1.329 €	478 € 665 €
Bideolab Bideo postprodukzioko gela	107 €	957 €	478 €
Bideoa editatzeko gela (25 ordenagailu)	231 €	2.038 €	1.020 €
TBko platoa (Set 1-chroma key eta Set 2- ziklorama gortina)	178 €	1.329 €	665 €
TBko platoa (Set 1-chroma key eta Set 2- ziklorama gortina) eta kontrol-gela	231 €	2.038 €	1.020 €
Gesell Laborategia	231 €	2.038 €	1.020 €

Tarifak aplikatzeko arauak:

Lokalak hiru modaliteren arabera aloka daitezke: 1. tarifaren, 2. tarifaren eta 3. tarifaren arabera. Azken bietan (2 eta 3) gehiegizko denbora kobratzeko 1. tarifa aplikatuko zaio benetan emandako gehiegizko ordu kopuruari.

Ordu zatiak goitik biribilduko dira ordu erdia gainditu bada, edo behetik, ordu erdira heldu ez bada.

Tarifaren modalitatea ezin izango da aldatu lokalak erabiltzen hasi ondoren.

Tarifak lokalak instalatuta dituen ikus-entzunezko baliabideen eta espazioaren alokairua baino ez du barne hartzen, baina ez du beste sare zerbitzurik barne hartzen. Tarifa horri gehitu beharko zaio lokala garbitzeko lanaren kostua eta zerbitzua emateko behar diren langileak (atezaina, ikus-entzunezkoen teknikaria etab.)

Aurrekontuari fidantza gehituko zaio (alokairuaren kostuaren %25, BEZ barik) eta diru kopurua UPV/EHUko aurrekontuen kontuan sartuko da.

Lokalak erabiltzen amaitutakoan, benetan erabilitako orduen datuak bidaliko dira eta faktura jaulkiko da.

Multimedia-teknikarien laguntza behar izanez gero, lokala erreserbatu dela baieztatzeko, aldez aurretik prest dagoela egiaztatu beharko da.

Gelak eskola orduetatik kanpo bakarrik egongo dira erabilgarri, eta fakultatearen beraren irakaskuntzaren antolakuntzak izango du lehentasun osoa.

Tarifa horien barruan ez daude sartuta teknikarien laguntza, muntaketa lanak edo aparteko prestakuntza lanak.

Instalazioak alokatzeak ez du eskubiderik ematen bertan publizitatea jarri, sarrerarik kobratu edo saltokirik jartzeko.

Horrez gain, eguneko 800 €-ko energia-gehigarria kobratuko da UPV/EHU berogailua piztuta dagoen bitartean larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan egiten diren okupazioetarako. Osagarriaren zenbatekoa eguneko 6.500 €-koa izango da berokuntza-sistema orokorraren menpeko Bizkaiko Campuseko Erandioko zentroak eta/edo eraikinak okupatzeko: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Arte Ederren Fakultatea, Areto Nagusia, Liburutegia, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea eta I eta II ikasgelategiak.

POSTPRODUKZIO ETA GRABAZIORAKO ARETOEN ALOKAIURUA

Grabazio ekipoetarako alokairu tarifak ondoren zehaztutakoak dira; postprodukzioko gela edo bideoak editatzeko gela alokatzean %20ko beherapena egingo da gelarekin batera ekipoak alokatzen badira:

Ekipo mota	1. TARIFA Egun bat 8:00-20:00	2. TARIFA Bi egun 8:00-20:00	3. TARIFA 4 egun 8:00-20:00	4. TARIFA Astebete 8:00-20:00
Grabazioko kita: Oinarrizko ENGa + eskuko mikrofonoa	161 €	290 €	516 €	805 €

Alokairurako plan pilotu honetarako erabiliko dira irakaskuntzako premietarako gutxien erabiltzen diren ekipoak.

Ekipo hauek alokatzeko aseguru poliza bat izan behar da ekipo horien arrisku orotako estaldurarekin.

Equipo horiek alokatuko dira ikastegiak horretarako daukan arautegiari jarraituta. Arautegia ondoko web orrian dago eskuragarri: <http://www.ehu.eus/eu/web/gkz-csc/gune-eta-instalazioen-alkairua>